



TXOSTEN METEOROLOGIKOA – UDABERRIA

Udaberria beroa izan zen eta prezipitazioari dagokionez ohikoa, nahiz eta batezbestekotik behera egon eta lehorra izan lurraldeko zenbait tokitan.

Muturreko meteorologiari dagokionez, 48 abisu hori igorri ziren, kausen arabera ezberdin banatuta. Martxoa izan zen, alde handiarekin, hilabeterik gorabeheratsuen, 32 abisu hori igorri ziren, gehienak itsasaldeko arriskuagatik eta haize zakarragatik. Horietako batzuk inpaktu handiko depresio biren ondorio izan ziren, hilaren 9tik aurrera *Mónica* izenekoa eta hilaren 26tik aurrera *Nelson* izenekoa. Apirileko lehengo herenean abisu horiak bi kausa horiekin loturik egon ziren. Azpimarragarriak dira apirilaren 27ko haize-boladak, ekaitz larri bati loturikoak, Arabako larrialdi-zerbitzuek hainbat parte-hartze egin behar izan baitzituzten. Azkenik, maiatza hilabete lasaia izan zen, prezipitazio handiagatik abisu batzuk baino ez ziren igorri. Aipagarriak diren bakarrak, nahiz eta oso lokalizatuak izan, hilaren 19koak Goierri izan zirenak, Lazkaon uholde batzuk eragin zituen euri eta txingor jasak.

Efemerideei dagokienez, aipatzekoa da apirilean tenperaturen markak hautsi zirela. Alde batetik, hilaren 5eko minimo altuak, izan ere kostaldean gau tropikalak izan ziren, sasoi honetan orain arte inoiz gertatu gabea. Bestalde, hilaren 13ko eta 14ko maximo absolutuak Kantauriko bailaretan eta Arabako zenbait estaziotan (bereziki mendi inguruetan).

Prezipitazioa

Pilatutako kantitatearen arabera, udaberria ohikoa izan zen, nahiz eta batezbestekoaren azpitik egon. Hala eta guztiz ere, zenbait tokitan lehorra izan zen, adibidez, Enkarterrietan, Bilbo Handian, Gorbeialdean eta Arabako Errioxan.

Gipuzkoa ipar-ekialdean pilatu zen prezipitazio gehien (Eskas 592.6 mm, Añarbe 489.6 mm, Ereñozu 424.7 mm, Oiartzun 399.6 mm, Behobia 397.1 mm), eta baita Kantauriko bailaretako zenbait tokitan ere (Iruzubieta 489.6 mm, Urkizu 402 mm, Zegama 377.2 mm, Urkiola 372.2 mm, Ordizia 343 mm). Isurialdeen banalerroaren hegoaldean, pilatutako kantitateak azkar murrizten dira, eta Ebro ibarrean egin zuen euri gutxien (Páganos 80.1 mm, Moreda 113.2 mm, Zambrana 142.2 mm, Nanclares 145.8 mm, Subijana 147.5 mm). Mende honetan, orain arte jasotakoarekin alderatuz gero, balio hauek erditik behera kokatzen dira, 2008ko eta 2007ko udaberri euritsuetatik oso urrun.

Hiruhilekoak kontraste handiko bilakaera izan zuen. Ohiko martxo batekin hasi zen, baina oso aldakorren zonen arabera (hezea kostaldean eta Araba eta Gipuzkoa arteko mendialdean; lehorra Kantauriko bailaretan eta Arabako Errioxan). Ondoren, apirila oso lehorra izan zen, batez besteko klimatologikoaren

erdia baino gutxiago egin zuen eta Arabako Lautada eta Errioxako serie historikoen artean lehorrenetako bat izan zen. Maiatza oso hezea izan zen.

Euri-egunak batez besteko klimatologikoa baino zertxobait gehiago izan ziren Kantauri isurialdean, 40 egun inguru. Aldiz, Mediterraneo isurialdean ia ohikoak izan ziren, 30 euri-egun inguru Arabako Lautadan.

Martxoan prezipitazioa hiru egunetan izan zen oso ugaria, zehazki, hilaren 2an, 9an eta 11n. Euria ondo banatu zen lurraldean barrena eta ez da bereziki nabarmentzen gertaera bat. Hilaren 2a martxoko egunik euritsuena izan zen, lurralde osoan batez beste 19.2 mm pilatu ziren, prezipitazioa ugaria izan zen ia EAE osoan, Araba hegoaldean izan ezik; oso ugaria izan zen ekialdeko kostaldean eta Kantauriko bailaretako zenbait tokitan (Oiartzun 41.7 mm, Elorrio 34 mm, Zegama 32.4 mm, Aixola 30.3 mm, Urkizu 30.2 mm, Behobia 30.2 mm).

Apirilean egun batean ere ez zen izan prezipitazio oso ugaria.

Maiatzean, bost egunetan prezipitazioa oso ugaria izan zen: 1ean, 13an, 14an, 19an eta 20an. Hilaren 13a udaberri osoko egunik euritsuena izan zen, lurralde osoa kontuan izanda, batez beste 24.5 mm pilatu zen. Arratsaldean euria etengabe egiten hasi zen eta egunaren bukaeran pilatutako kantitatea ugaria izan zen ia EAE osoan, eta oso ugaria isurialdeen banalerroaren inguruan (Urkizu 39.8 mm, Tobillas 35.4 mm, Saratxo 34.9 mm, Amundarain 34.2 mm, Urkiola 32.8 mm, Altube 32.6 mm, Amorebieta 31.3 mm).

Hurrengo egunean, hilaren 14an, hilaren 22ra arte iraun zuen ezegonkortasun aldi bat hasi zen. Mendebal-osagaiko fluxu hezeak ezegonkortasuna ekarri zuen, konbekzioa ez zen sakonegia izan, eta egunero zaparrada trumoitsoak egin zituen. Hilaren 14an, 17an, 19an eta 20an, zaparrada handiak bota zituen, nabarmentzekoak dira hilaren 19koak, batez ere EAEren ekialdean eragin zuten (Ordizia 27.7 mm/h, Salvatierra 26.8 mm/h, Añarbe 19.8 mm/h, Zegama 16.3 mm/h, Lasarte 15.8 mm/h), eta egunaren bukaeran zenbait tokitan pilatutako prezipitazioa oso ugaria izan zen (Lasarte 51.9 mm, Salvatierra 40.5 mm, Ordizia 40.2 mm, Zegama 34 mm, Añarbe 30.9 mm). Azpimarragarria da, arratsaldeko lehen orduetan botatako euri eta txingor jasa; Lazkaoko (Goierri) kale batzuk urez bete zituen eta udalerriko garaje, lokal eta etxabeetan eragina izan zuen.

Azkenik, aipatzekoa da martxoko lehenengo hiru egunetan abisu horia igorri zela elurragatik maila ertain eta altuetan. Hilaren 2ko eguerditik aurrera momenturik esanguratsuen gaizatu zen. Fronte baten ondorioz, elur-maila azkar jaitsi zen eta arratsaldean 600 m inguruan zuritu zuen, hala ere, igaro ostean elur-kotak gora egin zuen berriro.

**1 Taula. Azken urteetan udaberrian pilatutako prezipitazioa Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.**

	2024	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
Zorrotza	186.1	115.5	198.2	136.8	223.6	165.3	267.0	210.6	288.6	235.7
Lasarte	375.7	286.0	403.2	165.7	400.0	363.6	444.3	307.0	405.8	359.9
Arrasate	269.3	203.1	250.7	162.8	334.6	280.6	427.3	258.2	491.3	332.3
Abetxuko	180.1	71.7	144.3	118.7	187.0	148.2	273.2	102.4	174.8	142.9
Párganos	74.9	32.6	79.1	73.6	185.8	104.1	188.1	78.8	133.4	89.3

Temperatura

Batez besteko tenperaturaren arabera, udaberria beroa izan zen 1991-2020ko ohiko aldiaren arabera. Kostaldean 13-14 °C arteko izan zen eta Arabako Lautadan 10-11 °C ingurkoa, hau da, lurralde osoa kontuan izanik, ohikoa baino 0.5 °C altuagoa. Mende honetan, orain arte neurtutakoarekin alderatuz gero, balio hauek erdiko posizioan daude, 2011, 2023 eta 2003 urteetako udaberri beroenen batezbestekoa baino 1°C baxuagoa izan zen.

Hiruhilekoan izandako bilakaera oso ezberdina izan zen. Udaberria martxo oso bero batekin hasi zen. Ondoren, apirileko lehen hamabostaldiak izaera bero horrekin jarraitu zuen; hala ere, bigarren hamabostaldian aldi hotz bat hasi eta maiatzera arte luzatu zen. Gauzak horrela, hilabete hura hotza izan zen, urtea hasi zenetik lehenengoa.

Martxoko 1etik 6ra bitartean udaberriko aldirik hotzena izan zen eta Mediterraneo isurialdeko zenbait tokitan izotz txiki-handia egin zuen. Hilaren 6an, izotza modu orokorragoan egin zuen, inbertsio termiko handiaren eraginez, eta Kantauri isurialdean ere egin zuen (Pagoeta -3.8 °C, Navarrete -3.6 °C, Salvatierra -3.4 °C, Otxandio -2.4 °C, Balmaseda -0.9 °C, Muxika -0.6 °C, Arrasate -0.4 °C).

Apirilaren 18tik aurrera, Mediterraneo isurialdearen barnealdeko zenbait tokitan ere izotza egin zuen, oro har, txikia izan zen. Azpimarragarrienak, hilaren 19koak izan ziren, soilik Arabako Errioxan eta mendi inguruetan ez zuen egin, eta hilaren 28koak, apirilean soilik egun hartan egin zuen izotza Gasteizen. Maiatzean, soilik hilaren 2an egin zuen izotza eta sasoian azken aldiz; izoztea txikia izan zen eta Araba hegoaldeko zenbait tokitan baino ez zuen egin (Subijana -1.5 °C, Pagoeta -0.7 °C, Espejo -0.5 °C, Tobillas -0.3 °C).

Maximoei dagokienez, balio altuenak ez ziren maiatzean neurtu, espero daitekeen moduan, baizik eta apirilean.

Apirilaren 6an sasoi hartarako temperatura oso beroa izan zen kostaldean eta baita Arabako Kantaurin eta Enkarterrin ere (Sodupe 30.5 °C, Zorrotza 30.3 °C, Oiartzun 29.5 °C, Areta 29.4 °C, Arteaga 29.4 °C). Are deigarriagoak dira aurreko eguneko balio minimoak, hilaren 5ekoak, apirilean inoiz neurtutako tenperaturarik altuenak EAEn. Hilaren 4tik 5era eta 5etik 6ra bitarteko gauak tropikalak izan

ziren kostaldean, sasoi honetan inoiz gertatu gabea (Oiartzun 22 °C, Mungia 21.9 °C, Almiike 20.6 °C, Punta Galea 20.6 °C, Aizarnazabal 20.5 °C, Zizurkil 20.2 °C).

Lurraldearen barnealdean aldi beroena hilaren 12tik 14ra bitartekoa izan zen. 30 °C-ren muga behin eta berriz gaintitu zen Kantauriko bailaretako zenbait tokitan (Gardea 33.3 °C, Urkulu 33.1 °C, Ordunte 32.5 °C, Igorre 32.4 °C, Estanda 31.9 °C hilaren 13an; Gardea 32.3 °C, Urkulu 32.3 °C, San Prudentzio 32.3 °C, Saratxo 31.8 °C hilaren 14an). Horrez gain, estazio batzuetan apirileko tenperatura maximo absolutuen errekorra hautsi zen zona horretan eta baita Araban ere (bereziki mendi inguruetan).

Beroaldiekin jarraituz gero, azpimarragarria da martxoaren 22a ere, orduan errekorra hautsi zen Arabako mendialdeko estazio gutxi batzuetan (Iturrieta 23.8 °C, Zaldiaran 23.2 °C).

Intsolazioa ohikoa izan zen Kantauri isurialdean eta zertxobait altuagoa Mediterraneo isurialdean, gutxi gorabehera %10 eguzki-ordu gehiago. Hiriburuz hiriburu: Bilbon 439 eguzki-ordu izan ziren, Donostian 482 eta Gasteizen 507 udaberri osoan.

Taula 2: Udaberrian, azken urteetan, neurtutako batez besteko tenperatura Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan.

	2024	2023	2022	2021	2020	2019	2018	2017	2016	2015
Zorrotza	14.2	15.4	14.7	13.4	14.6	13.5	13.4	14.1	13.6	14.3
Lasarte	13.0	13.8	13.5	12.6	14.3	12.1	13.1	13.6	12.4	13.0
Arrasate	12.2	13.2	12.6	11.3	12.6	10.7	11.2	12.7	10.4	11.8
Abetxuko	10.8	11.4	10.7	9.8	11.8	10.1	10.3	11.9	9.8	11.4
Páganos	12.1	13.3	12.0	11.3	12.4	10.9	10.6	13.2	10.2	12.3


Udaberriko oinarritzko datu estatistikoak

Taula 3: Udaberriko balio klimatikoak, Euskal Autonomi Erkidegoko sare automatikoaren estazio adierazgarrietan


	Batez besteko Tenp. °C	Tenp. max. °C	Tenp. max.abs. °C	Tenp. min. °C	Tenp. min.abs. °C	Izotz- egunak	Pilatutako euria l/m ²	Egun batean pilatutako euri max. l/m ²	Euri- egunak.
Estazioa									
Zorrotza	14.2	18.7	30.3	10.6	5.1	0	186.1	22.6	36
Lasarte	13.0	17.8	29.0	8.7	3.7	0	375.7	51.9	42
Arrasate	12.2	18.3	31.7	7.4	-0.4	1	269.3	27.5	38
Abetxuko	10.8	17.2	29.3	5.2	-1.1	3	180.1	22.8	31
Páganos	12.1	17.9	28.4	6.7	0.6	0	74.9	9.3	16



Eguneko temperatura eta prezipitazioaren grafikoak



Prezipitazioaren jokaera





Muturreko egoerak

Udaberrian 48 abisu hori igorri ziren, ondoren azaltzen diren kausen arabera banatuta: 8 prezipitazio handiagatik, 4 elurragatik, 8 haizeagatik haizeguneetan, 4 haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan, 10 olatuen altueragatik nabigaziorako lehenengo bi milietan, 9 kostaldean inpaktuagatik, 1 enbatagatik, 2 izotzagatik eta 2 baso-sute arriskuagatik.

Ondoren gertaera esanguratsuenen sorta aurkezten da:

Martxoa

- Hilaren 1eko goizaldean elur-kota 800-1000 m inguruan egon zen eta prezipitazio txikia egin zuen han-hemenka, bereziki Gipuzkoa ekialdean, bertako zenbait tokitan ertaina izan zen. Ondoren, elur-kota igo eta 1000 m-tik gora kokatu zen. Hilaren 2ko lehenengo zatian elur-kota 1400-1500 m inguruan egon zen, baina fronte bat sartzearekin batera azkar jaitsi zen eta arratsaldean 600 m inguruan zuritu zuen; hala ere, frontea igaro ostean elur-kotak gora egin zuen berriro. Egunaren bigarren zatian elur-kota 600 eta 900 m artean mugitu zen. Arratsaldean prezipitazio txiki-ertaina egin zuen, frontea igaro ostean atertu egin zuen, bereziki Mediterraneo isurialdean. Hilaren 3ko lehenengo orduetan elur-kota 600 m inguruan egon zen, baina goizak aurrera egin ahala igo egin zen eta arratsaldean 1000 m-tik gora kokatu zen. Egun hartan zaparrada txiki-ertainak bota zituen, bereziki Kantauri isurialdean, eta txingorra egin zuen Donostialdean eta Oarsoaldean; hala ere, goizaldean prezipitazioa, oro har, txikia izan zen, Gipuzkoa ipar-ekialdeko zenbait tokitan izan ezik, eta Kantauri isurialdean baino ez zuen egin.

Ostirala, hilak 1: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 03etara ordu lokala.

Larunbata, hilak 2: Abisu Horia elurragatik barnealdean 12etatik 24etara ordu lokala.

Igandea, hilak 3: Abisu Horia elurragatik barnealdean 00etatik 12etara ordu lokala.

- Hilaren 27an, egunaren erdialdeko orduetan, hego-mendebadeko haizea indartu egin zen. Arratsaldean haize-bolada gogorrak eta oso gogorrak izan ziren eta haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten, bai haizeguneetan, bai haizeguneak ez diren tokietan (Ordizia 115 km/h, Nanclares 105.5 km/h eta Subijana 105.1 km/h). Mendebaldeko haizeguneetan haize-boladek 120 km/h-ko abiadura gainditu zuten, 140.8 km/h neurtu ziren Urduñan, 133.7 km/h Cerrojan eta 132.7 km/h Untzuetan. Gauean haizeak indar apur bat galdu zuen eta kostaldean ipar-mendebaldera aldatu zen. Hilaren 28an, goizaldean, haizea ahulago ibili zen, baina haizeguneetan haize-boladek 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten oraindik. Eguerditik aurrera, ordea, haizea indartu egin zen berriro eta gertaera osoan izandako haize-bolada gogorrenak neurtu ziren. 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten haizeguneetako estazio askotan (Orduña 142.2 km/h, La Garbea 112.2 km/h, Cerroja 103 km/h, Matxitxako 102.3 km/h) eta 80 km/h-ko abiadura haizeguneak ez diren tokietan (Navarrete 95.3 km/h, Gasteiz 85.4 km/h, Iurreta 82.6 km/h, Zorrotza 80.1 km/h), baina kasu honetan

izandako haize-boladak ez ziren hilaren 27an izandakoak bezain gogorrak izan, bereziki haizeguneak ez diren tokietan. Gauean hego-mendebaldeko haizeak indarra galdu zuen.

Haizeguneetako estazioa	Haize-bolada, hilak 27 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	140.8	17:40
Cerroja	133.7	18:40
Zaldiaran	124.5	20:00
Jaizkibel	103.4	19:20

Haizegunean ez dagoen estazioa	Haize-bolada, hilak 27 (km/h)	Ordua UTC
Ordizia	115.0	19:20
Nanclares	105.5	18:30
Subijana	105.1	19:10
Gasteiz	96.3	18:00

Haizeguneetako estazioa	Haize-bolada, hilak 28 (km/h)	Ordua UTC
Orduña	142.2	15:40
Punta Galea	115.7	09:30
Untzueta	113.9	15:50
Zaldiaran	103	15:30

Haizegunean ez dagoen estazioa	Haize-bolada, hilak 28 (km/h)	Ordua UTC
Navarrete	95.3	16:00
Gasteiz	85.4	16:00
Iurreta	82.6	16:20
Zorrotza	80.1	15:50

Asteazkena, hilak 27: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 15etatik 22etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan 15etatik 22etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 28: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 15etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik Bizkaiko eta Arabako haizeguneak ez diren tokietan 15etatik 24etara ordu lokala.

- Hilaren 27tik 29ra itsasoko egoera esanguratsua izan zen, bereziki kostaldean izandako inpaktuagatik, izan ere, marea astronomikoak 4 m-tik gorakoak izan ziren. Hilaren 27an, lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=5.9$ m eta $I_{max}=6.2$ m izan ziren, bigarrenen $I=5.9$ m eta $I_{max}=6.3$ m. Hilaren 27an, gauean altuera adierazgarria igo eta hilaren 28an gora egiten jarraitu zuen. Azken orduetan Pasaiaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 4.5 eta 5 m artekoa izan zen, gauerdian 5.6 m-koa. Hilaren 28an, bigarren itsasgoran Donostiako buian olatuen altuera 6.4 m ingurukoa izan zen, 17 segunduko periodoarekin, eta estimatutako gainezka egiteko indizeak aipagarriak izan ziren, $I=6.8$ m eta $I_{max}=7.4$ m. Hilaren 29an, orduak aurrera joan ahala, olatuen altuera gero eta txikiagoa

izan zen eta goizean goiz Pasaiaiko portuan olatuen altuera adierazgarria 3.5 m-tik beherakoa izan zen. Lehenengo itsasgoran estimatutako gainezka egiteko indizeak $I=6.2$ m eta $I_{max}=6.7$ m izan ziren.

Asteazkena, hilak 27: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 20etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 05etatik 07etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 17etatik 19etara ordu lokala.

Osteguna, hilak 28: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 05etatik 07etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 17etatik 20etara ordu lokala.

Ostirala, hilak 29: Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Nabigazioa lehenengo bi milietan 00etatik 09etara ordu lokala. Abisu Horia itsasaldeko arriskuagatik: Kostaldean inpaktua 05etatik 08etara ordu lokala.

Apirila

- Hilaren 5eko goizaldean hego-osagaiko haize-boladak 100 km/h-tik gorakoak izan ziren ipar-mendebaldeko haizeguneetan. Ondoren haizea zertxobait baretu zen, baina egunaren bigarren zatian indarra hartu zuen berriro eta hego-ekialdekoa nagusitu zen. Egunaren bukaeran ufadak 100 km/h ingurukoak izan ziren toki garaietan (Oiz 99.1 km/h, Zaldiaran 98 km/h). Hilaren 6ko goizaldean eta goizean goiz haize-boladek berriro ere 100 km/h-ko abiadura gainditu zuten haizeguneetan eta baita 80 km/h-ko abiadura barnealdeko haizeguneak ez diren tokietan. Egunaren gainerako orduetan ufadak ez ziren hain gogorrak izan, nahiz eta arratsaldeko lehen orduetan oraindik 100 km/h-tik gorakoak izan ipar-mendebaldeko mendi inguruetan. Egun horietan tenperatura altua izan zen, maximoek 27 °C-ak gainditu zituzten Kantauri isurialdeko zenbait tokitan hilaren 5ean, eta hilaren 6an, hodei gutxiagorekin, 30 °C-ak gainditu zituzten Bizkaian (Sodupe-Cadagua 30.5 °C). Hegoaldeko haize zakarrari eta tenperatura altuari esker baso-sute arriskua altua izan zen egun horietan. Hilaren 5ean sua piztu zen zenbait sasitan eta baso inguruetan (Arrigorriaga, Lemoiz).

Haizeguneetako estazioa	Haize-bolada, hilak 5 (km/h)	Ordua UTC
Matxitxako	103	03:40
Orduña	100.2	03:10

Haizeguneetako estazioa	Haize-bolada, hilak 6 (km/h)	Ordua UTC
Jaizkibel	108.6	01:10
Zaldiaran	106.2	03:10
Oiz	104.1	07:40
Matxitxako	102.3	06:50

Orduña	102.3	14:20
--------	-------	-------

Haizegunean ez dagoen estazioa	Haize-bolada, hilak 6 (km/h)	Ordua UTC
Zegama	83.9	03:50
Ilarduia	83.3	04:30
Goiaín	80.4	01:40
Navarrete	80.1	03:20

Ostirala, hilak 5: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Bizkaian eta Araban 00etatik 12etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan Gipuzkoan eta Araban 21etatik 24etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 24etara ordu lokala. Larunbata, hilak 6: Abisu Horia haizeagatik haizeguneetan 00etatik 12etara ordu lokala. Abisu Horia haizeagatik haizeguneak ez diren tokietan Gipuzkoan eta Araban 00etatik 12etara ordu lokala. Abisu Horia baso-sute arriskuagatik 00etatik 21etara ordu lokala.

- Hilaren 27ko goizean hegoaldeko haizea ibili zen eta tenperaturari igotzen lagundu zion Kantauri isurialdean, izan ere, zenbait tokitan 20 °C-tik gorakoa izan zen. Arratsaldeko lehen orduetan haizea mendebal/ipar-mendebaldera aldatu zen Bizkaiko kostaldean, 40-50 km/h inguruko ufadekin eta tenperatura 4-5 °C inguru jaitsi zen ordubeteen. Haizea norabide aldaketaren unean zakartu egin zen Gipuzkoan, bolada gogorrak neurtu ziren (Higerren 90 km/h inguruko ufadak neurtu ziren), baina tenperaturaren beherakada berdintsua izan zen.

Estazioa	Haize-bolada, hilak 27 (km/h)	Ordua UTC
Punta Galea	49.4	14:00
Matxitxako	45.1	14:20
Santa Clara	63.1	16:30
Higer	89.2	16:40

Larunbata, hilak 27: Abisu Horia itsasaldeko arriskua: enbatagatik 14etatik 18etara ordu lokala.

Maiatz

- Iberiar penintsulan goi-geruzan zegoen ezegonkortasunaren ondorioz, zaparrada trumoiak garatu ziren zenbait egunetan. Hilaren 19an eta 20an EAEn zaparrada handiak bota zituen. Hilaren 19an, goizaldean, zaparrada txiki batzuk bota zituen, batez ere ekialdean, goizean atertzera egin zuen. Egunaren erdiko orduetan barnealdean zaparrada trumoiak garatu ziren berriro ere. Arratsaldean Araba hegoaldean eta ekialdean eta Gipuzkoako ekialdean trumoi-ekaitzak izan ziren eta Ordizia eta Salvatierra estazioetan ordubeteen ia 30 mm pilatu ziren. Arratsalde-gau partean Gipuzkoako ekialdeko zenbait tokitan zaparrada handiak bota zituen, bai barnealdean



(Zegama), bai kostaldean (Lasarte eta Añarbe). Hilaren 20an, goizaldean, Kantauri isurialdean bota zituen zaparradarik mardulenak, batez ere kostaldean; horrela, Behobian zaparrada handia bota zuen. Goizean trumoi-ekaitzak desegin ziren, batez ere barnealdean, baina eguerdi aldera euritara jo zuen berriro. Arratsaldean Arabako Lautadan zaparradak bota zituen; hamar minutuan pilatutakoa ez zen aipagarria izan, baina zaparradek ordubete baino gehiago iraun zutenez, Arkauti estazioan euria handia izan zen.

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 19 (mm/h)	Ordua UTC
Ordizia	27.7	14:10
Salvatierra	26.8	16:50
Añarbe	19.8	23:20
Zegama	16.3	20:20
Lasarte	15.8	18:20

Estazioa	Prezipitazioa, hilak 20 (mm/h)	Ordua UTC
Behobia	15.9	03:10
Arkauti	15.2	16:10

Igandea, hilak 19: Abisu Horia prezipitazio handiagatik 15etatik 24etara ordu lokala.
Astelehena, hilak 20: Abisu Horia prezipitazio handiagatik Kantauri isurialdean 00etatik 09etara ordu lokala.



Terminologia

Batez besteko tenperatura: urtaroko batez besteko tenperatura.

- *Tenperatura maximoa:* eguneko tenperatura maximoen urtaroko batezbestekoa.
- *Tenperatura maximo absolutua:* urtaroko tenperaturarik altuena.
- *Tenperatura minimoa:* eguneko tenperatura minimoen urtaroko batezbestekoa.
- *Tenperatura minimo absolutua:* urtaroko tenperaturarik baxuena.
- *Izotz-egunak:* urtarotan, tenperatura 0 °C-tik behera egon deneko egun kopurua.
- *Pilatutako prezipitazioa:* urtarotan pilatutako prezipitazio totala.
- *Eguneko prezipitazio maximoa:* urtarotan, eguneko prezipitazio total altuena.
- *Prezipitazio-egunak:* urtarotan, estazioak ≥ 1 mm-ko prezipitazioa neurtzen duen egun kopurua.

Tenperaturaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat beroa:* tenperaturak, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso beroa:* $f < \%20$. tenperatura, urterik beroenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Beroa:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. tenperatura erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Hotza:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso hotza:* $f \geq \%80$. tenperatura, urterik hotzenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat hotza:* tenperatura, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Prezipitazioaren maiztasun-indizea (f) . Irizpidea:

- *Erabat hezea:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio maximoa, gainditzen duenean.
- *Oso hezea* $f < \%20$. prezipitazio-kopurua, urterik hezeenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Hezea:* $\%20 \leq f < \%40$.
- *Ohikoa:* $\%40 \leq f < \%60$. prezipitazio-kopurua erdiko balioaren inguruan aurkitzen denean.
- *Lehorra:* $\%60 \leq f < \%80$.
- *Oso lehorra:* $f \geq \%80$. prezipitazio-kopurua, urterik lehorrenen %20ari dagokion tartean dagoenean.
- *Erabat lehorra:* prezipitazio-kopurua, 1981-2010eko denboraldiko balio minimora irizten ez denean.

Testuan erabilitako beste termino meteorologikoen azalpena hurrengo terminologia gidan aurki daiteke: <https://www.euskalmet.euskadi.eus/dibulgazioa/estilo-gidaliburua/>

OHARRA: txosten honetan erabilitako datuak behin-behinekoak dira eta erabat balioztatzeko daude.